



11. Bertze Musiken jaialdia

www.ertza.net/ertz11

2010eko IRAILAREN 10etik 18ra
BERA / DONOSTIA / HAZPARNE

Euskaraz erran ohi da “hamaika ikustekoak jaiok” garelara. Guk, ezin du bertze modu batera izan, “hamaika entzuteko jaiok” ote garen galdetzen diogu geure buruari. 2009ko urteurrenaren bukaeran gogorarazi ziguten bezala, hamaika, euskaraz behintzat, ez baita soilik hamarraren hurrena, baizik hamargarrenaren ondotik datozen guztien zenbakia.

ERTZ jaialdi edo bestaldi, edo musikaldi, akaso joaldi, edo hobe soinualdi... entzunaldi? dena delako honetarako hamaikaren definizio hau akaso gehiegixko izanen da, haundiegi, asmo haundiegikoa, ozenegia. Hasteko, hamaikagarren honetan hemendik aitzinerako ideia eta intentzio guziak batzea haundiegi doakigun atorra delako eta etorkizunari bere izaera kentzea ere izanen litzatekelako nolabait. Dena aurreidatzirik balego bezala. Eta bertetik, gureak bezalako baldintzekin, eta hamar urtez hutsik egin gabe ere, zaila delako hamabigarrenen imajinatzea.

Beharbada horregatik ekitaldi hau antolatzen dugunontzat, urte bakoitza, zenbaki bakoitza, aldi berri bat da, edo nahi bada, hamaika berri bat aldioro. Aurten Bera, Donostia eta Hazparne arteko elkarlanean, baina bertze urtetan Tolosan edo Azkoitian ere, hamaika lan ematen baitugu han eta hemen.

Eta beharbada horregatik ere, zilegi zaigu erratea, harrotasun puntu batekin gainera, aurten ere hamaika soinu, ahots, belarri, musika, irudi, egoera, artista, ideia eta oihartzun gonbidatu ditugula gurera. Eskerrik asko beraz hamaika horren makiltxo bakoitza zutik mantendu eta zenbaki ale bakoitza biltzea posible egiten duzuen guziori.

Ongi etorri **ERTZ Bertze musiken jaialdiaren 11. ediziora.**

EGITARUA

IRAILAK 10 OSTIRALA

Kaxerna gaztetxea, BERA / 20:30

Kontzertua: **PLU DE MEKANISMS**

Zinema: **Pistilos, Estambres & Biribilketak** 16mm pintada, PIDGIN#8

IRAILAK 11 LARUNBATA

Hiltegi zaharra, BERA / 19:00

Kontzertua: **ALESSANDRO BOSETTI & MAIALEN LUJANBIO**

Kultur etxea, BERA / 22:00

Kontzertua: **DAVE PHILLIPS**

Kontzertua: **FRANCISCO MEIRINO**

Kontzertua + zinea: **CELLULE D'INTERVENTION METAMKINE**

Hiltegi zaharra, BERA / 11:00-20:00

Audiogida: **NOTOURS - ADIBERA**

IRAILAK 12 IGANDEA

Hiltegi zaharra, BERA / 11:00-20:00

Audiogida: **NOTOURS - ADIBERA**

Kaxerna gaztetxea, BERA / 19:00

Performance: **INAZIO ESCUDERO**

Ikuskizuna: **MAKI**

IRAILAK 13 ASTELEHENA

Arteleku, DONOSTIA / 19:00

Aurkezpena - Hitzaldia: **NOTOURS - ESCOITAR**

Ikuskizuna: **MAKI**

IRAILAK 14 ASTEARTEA

Arteleku, DONOSTIA / 19:00

Kontzertua: **ALESSANDRO BOSETTI & MAIALEN LUJANBIO**

Kontzertua: **ULTRANOISE**

Kontzertua: **SONIC WEAPONS**

IRAILAK 16 OSTEGUNA

Kristina Enea, DONOSTIA / 19:00

Hitzaldia: **MIGUEL ALVAREZ FERNANDEZ**

Kontzertua: **ALESSANDRO BOSETTI**

IRAILAK 18 LARUNBATA

Elgar zentrua, HAZPARNE / 18:00

Aurkezpena - Kontzertua: **SOINUMAPA**

Ttattola gaztetxea, HAZPARNE / 20:30

Ikusentzunezkoa: **AMAZONIAN ROVERS**

Aurkezpena: **HÔTEL GROMADA WORKSHOP**

Kontzertua: **HÔTEL GROMADA**

+ 15-16-17 SEPTIEMBRE

LEKUINE, HAZPARNE

Workshop: **HÔTEL GROMADA**

ARTISTAK



Cellule d'Intervention METAMKINE

Christophe Auger: zine proiektoreak

Xavier Quérel: zine proiektoreak

Jérôme Noetinger: gailu elektroakustikoak

Metamkine talde frantziarrak bere jardueretako bat aurkezten du, eszenatokian aldi berean musikariak eta zinemagileak biltzen dituen, zuzenean inprobisatuz eta bai soinuak baita irudiak ere eskuz sortuz, zine proiektagailuak nahiz magnetofonoak bezalako tresna analogikoak erabiliz. Metamkinek irudiaren eta soinuaren arteko jolas pertsonala proposatzen du, eurek "zinema belarrientzat eta musika begientzat" adierazpenarekin definitzen duten bi diziplinen arteko zubi lana egiten duena.

<http://metamkine.free.fr>



MAKI

2005ean, Grenoble hiriko "Culture Ailleurs" elkarteak jarri zuen martxan Maki. Handik guttira, nazioarteko kultur elkartruke egitasmotan aritutako bost artista frantsesek Maki ikuskizuna sortu zuten. Beraien esperientziak eta jakituria artistikoak bateratuz eta inprobisazioak gidaturik, animatutako itzal ikuskizuna osatu zuten, beti ere poesia sortzea helburu izanik, berdin hau ikusizkoa edo musikazkoa izan. Ondotik bizi izan duen heldutasun prozesuan, egitasmo hau, izaera ezberdineko artista aunitzentzako – artista plastikoak, musikariak, dantzariak, zinemagileak, grafistak- beraien lana elkarbanatzeko topagune bihurtu da. Kolektibo ireki honek, leku ezberdinetara iristerakoan, lan artistiko monografikoak osatzen ditu, bukaeran etengabe aldatzen doan eta zuzenean gertatzen den instalazio moduko batean bihurtzen direnak. ERTZ jaialdian MAKI taldeak bi emanaldi eginen ditu, leku eta egoera aski ezberdinetan, bata Beran eta bertzea Donostiako Artelekun.

www.makicom.com



DAVE PHILLIPS

Soinuaren de/konstrukzioak, psikoakustikak eta mugak gainditzeko beharrak bultzaturik, esistentziak eta gizaki-animali jokabideak aztertzen eta pentsatzen darrai Dave Phillipsek (dp) 1984tik. Soinuak esperientzia zibilizatuak gordearazten dizkigun sentipen amankomunak berpizteko duen gaitasunaz baliatuz, eta aldaketak, zentzumenen desbideraketak, polemikoak edo katartikoak izan daitezken egoerak sortzeko duen indarrak jakitun, dpk intentsitate haundiko emanaldiak sortzen ditu. 80. hamarkadan muturreko hardcore musikaren eskenan parte hartu ondotik (ikus fear of god), Phillips bakarka hasi zen lanean, gorputzaren, ahotsaren eta orokorrean soinu ororen bidez sor zitzazken esperientzia eta fenomeno berriak topatu eta sortzeko asmoarekin. Bide hortan topatu ditu G*Park, Raionbashi, Rudolf eb.er, Tom Smith (to live and shave in l.a.), Antoine Chessex, Masonna, Randy H. Yau, Scott Arford, John Wiese edo Lucas Abela.

www.technit-aleph.com/dp



ALESSANDRO BOSETTI

Alessandro Bosetti (Milano, 1973). Konposatzaile eta soinu-artista honek mintzatutako hitzen musikalitatearekin eta ahozko komunikazioaren ezohiko alorrekin egiten du lan, zuzeneko emanaldi, irrati emanaldi edo grabaketetan islatzen diren idatzi-soinuzko konposizioak sortuz. Bere lanean Bosetti soinu antropologiaren eta konposizioaren arteko muga finetan mugitzen da, kasu askotan sorkuntza prozesuan edo itzulpenean sortzen diren akatsak lehengai bezala erabiliz. Modu horretan, elkarrizketa eta landa grabaketak konposizio abstraktoetarako oinarri bihurtzen dira, collage elektroakustiko eta akustiko, elkar erlazionaturiko estrategia, praktika musikal ezagun eta ezezagunak, ahozko esplorazioak eta manipulazio digitalak nahasiz.

ERTZ jaialdiaren edizio honetan Bosettik hiru emanaldi eskainiko ditu, bi Maialen Lujanbio lagun izanik (jaialdirako propio sortutako lana) eta hirugarren bat bakarrik, ZoOo erakusketaren aitzakian, Donostiako Kristina Enea zentruan.

www.melgun.net



MAIALEN LUJANBIO

Maialen Lujanbio bertsolaria da, Arte Ederretan lizentziaduna. 2009az gerotik Txapeldun nagusia da. Bertsoari dimentsio eta azalera berriak bilatzeko asmoz, bere esparru ezagunetik at abentura musikal eta artistikotan parte hartzeko beldurrik ez duela erakutsi izan du maiz Maialenek. Judith Montero eta Xabier Erkiziarekin martxan jarritako Ornitorrinkus egitasmoa da adibidez horren erakusgarri. Bertan, bertsoetik haratago kantatzen du Maialenek, bertsoaren tradizionaltasuna espazio berrietara eramanez eta poesia konkretuaren edo esperimentalaren eskutik bide berriak arakatur.

ERTZ jaialdiaren barne Lujanbiok Alessandro Bosettirekin batera, jaialdiaren enkarguz, prestatu lana aurkeztuko du zuzenean



FRANCISCO MEIRINO

Francisco Meirino 1994an hasi zen grabaketak egiten Phroq ezizenaren itzalean. Bere musika etengabe aldatzen diren soinu paisaia elektroniko konplexuetan oinarritzen da, dinamika haundiko soinu elektroakustikoak eta zarata hutsa nahasiz. Soinu hauen bidez, Meirinok aurreikusitako eta ezusteko emaitzen artean sortzen diren tentsioak zeharkatzen ditu. Besteak beste Groundfault, Banned Productions, Even Stille, Entr'e acte, Audiobot, Solpism, Gameboy eta bere disketxea den Shiver Soundsen eskutik argitaratu ditu lanak. Scott Arford, Dave Phillips, Zbigniew Karkowski, Cindy Van Acker, Lasse Marhaug, Tim Olive, edo Kasper T. Toeplitz izan ditu bidelagun.

www.franciscomeirino.com



ESCOITAR - NO TOURS

Escoitar.org zenbait artista, ingeniari eta ikerlarik sortutako kolektiboa da, fenomeno soziologikoak aztertzeke helburuarekin, beti ere soinu paisaia abiapuntutzat hartuz. Galizako soinuen mapa-artxiboa martxan jartzerakoan abiatu zuten bide amankomuna, geroago beraien aktibitateak ugaltu eta bestelako alorretara salto eginez, performatibitatearen, musikaltasunaren eta gizartearenganako atentzioaren artean, eta beti, hori bai, entzumenaren bidez.

noTours Escoitar.org kolektiboaren egitasmoetako bat da, PDA edo smartphoneak (potsikoko mini-ordenagailuak, aurikular bereziekin) erabiliz eta espazioarekin akustikoki esperimentatuz izaera ezberdineko lekuak bisitatzeko aukera ematen duena. Hori dena GPS+iparrorratz digitalen teknologiarik eta 3D audioari (binaurala eta anabisonikoa) esker sortzen dute. Edukien izaerak eta elkarreragiletasunaren zenbait ezaugarri ohiko audio-gida batetik ezberdintzen dute.

Aurtengo ERTZ jaialdiaren egitarauaren barne noTOURS plataformak ADIBERA egitasmoak sortutako edukiak erakutsiko ditu.

Bertzalde Escoitar-eko ordezkari modura jaialdian izanen diren Juan Gil eta Enrique Tomásék kontzertu bana eskainiko dute Donostiako Artelekun.

www.escoitar.org / www.notours.org



PLU DE MEKANISMS

Ibon RG: Ahotsa bere hortan

Loty Negarti: Teklatua + gailu elektronikoak

PLU DE MEKANISMS Ibon RGk (Eten, Biko, Saliva, Gol Portero...) eta Loty Negartik (Ex-Aitor Izagirre, Pidgin, Mubles) osatzen dute. Egitasmoa 2010ean abiatu zuten Butoh dantzarako musika inprobisatua egiteko elkarlanaren aitzakian. Geroztik egitasmoak aitzinera egin du aurrez-aurreko bikote bat izatera iritsi arte. P.D.M zarata goxoa da: A kapela ahots epelez eta elektronika minimalista gordinez sukaldatutako inprobisazio lizuna.

Emanaldiaren aitzakian gatza plataformaren PIDGIN egitasmo poetikoak (Loty Negartiko bertako kide da) margotutako filme berri bat aurkeztuko du "Pistilos, Estambres & Biribilketak" izenekoa, lehen aldiz publikoki.

<http://gabone.info/audio/PLU-DE-MEKANISMS.html>



INAZIO ESCUDERO

Direla bideoak, performanceak edo abestiak, Inazio Escuderoren piezak oso pertsonalak izan ohi dira. Oro har, lanek beti dute performance, erritmo eta kontaketa asko, baina inoiz ez antzerki edo errepresentaziotik abiatuta; aitzitik, egoerak sortzen dituzte.



HÔTEL GROMADA

Hôtel Gromada Nicolas Perret eta Cedric Anglaret musikarien egitasmoa da. Biak ere "Les Molières de l'Est" landa grabaketekin inprobisatzen duen taldeko kideak dira. 2007an, soinu paisaia, atmosfera arraro eta konposizio estrukturengan zituzten jakinmin amankomunek bultzaturik beraien egitasmoa martxan jarri zuten. Errealitatea musikagai bezala erabiliz, Hotel Gromadaren musikak, ikaragarri konkretuak diren soinuen eta abstrakzioaren artean dantzatzen du, irudirik gabeko narrazioek gidaturik entzulea leku imaginarioetara zuzenduz.

ERTZ jaialdiaren aurtengo egitarauaren barnean HÔTEL GROMADAK Hazparnen ospatuko den ekitaldietan hartuko du parte, soinuari buruzko tailer bat, hainbat argazkilarirekin elkarlanean sorturiko AMAZONIAN ROVERS egitasmoa eta kontzertu bat eskainiz.

<http://www.myspace.com/hotelgromada>
www.elephantandcastles.com



ADIBERA

Ertz herrian Beran hasten den zentzumenentzako mapa.
Sentikarta.

Mapa efimeroa. Irekia eta osatugabea (zurearen zai eta zure modukoa).
Paisaian diren hala paratzen ahal diren soinuak. Ikustekoak. Usain, taktu eta dastamenak. Ideiak.
Paisaio. Kartanbera.
Vera mente.

.....

Mapa edo Karta honetan (hauetan) izango diren sartze edo kontribuzio bakoitzak fitxa bat osatu beharko du. Fitxa honetan kontribuzioaren ezaugarriak eta, beharrezko direnean, egiteko moduak eta mantenimenduak azalduko dira. Fitxa hauek karta edo naipe moduan ere egin ahal daitezke, agertzen denaren ezaugarri bisuala eta sinbolikoa.
bERTZe musiketarik abiatuta Beratik mundura ireki nahi den sentsazio, sentipen, oihartzun, zirrara, eragin, irudipen, aieru, susmo... bildu eta azalduko dituen karta-mapa.
Aurtengo ERTZ jaialdiaren edizioan ADIBERA telefono bidez kontsultatzeko aplikazio-mapa bihurtuko da NOTOURS egitasmoarekin bat eginez.



SOINUMAPA.NET

SOINU MAPA edo Euskal Herriko Soinu Mapa webean oinarritutako egitasmo irekia da. "Fonografia" edo gure inguruko hotsak grabatzeko artea oinarritzat hartuz, landa grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatzeko balio duen artxibo egitasmoa da. Bertan, Euskal herrian zehar egindako hainbat grabaketa entzun ditzazkezu: hirietako zaratak, mendialdeko giroak, animaliak, ospakizunak, lekuak, gertakizunak...
SOINU MAPA 2005ean sortu zen Artelekuko Audiolaben ekitaldien barne.
Gaur, kolektiboki kudeatutako egitasmoa da, ERTZ jaialdiaren egitasmo honetan instalazio elkarreragile modura aurkeztuko zaiguna.

www.soinumapa.net



ULTRANOISE

Ultranoise crea inmersiones sonoras mediante sencillos procesos compositivos sobre un único material: el ruido blanco. Esos procesos, generados y controlados en tiempo real, se muestran diferentes en cada espacio, acoplándose a las propiedades acústicas de cada lugar de escucha. Ultranoise es Enrique Tomás, artista sonoro afincado en Austria. Miembro de diferentes colectivos musicales (endphase, EMI, recursiveDog) y artísticos (escoitar.org, FASE, Slurp), es director del Labor Linz de música electrónica y editor de mediatele. Sus obras se han presentado en múltiples festivales (Ars Electronica, Sonar, Casa Encendida, Laboral...) y países de Europa y América.

<http://ultranoise.es>



SONIC WEAPONS

Este trabajo presenta diferentes usos, desarrollos y tecnologías centradas en el sonido para ejercer control social y poder. La pieza realiza un acercamiento conceptual a este tema a través de audio-citas y otras formas de documentación que analizan el impacto y efecto de estas tecnologías, así como sus usos y abusos. A través del formato de micro-historia o docudrama, este trabajo pretende contribuir al análisis de los efectos del sonido sobre la existencia humana, permitiendo un análisis crítico de este fenómeno.

www.artesonoro.org/sonicweapons



AMAZONIAN ROVERS

Cuando una imagen toma prestado un sonido

Instalación visual y sonora

Duración: 35 minutos

Sonido: **Hotel Gromada** (Cédric Anglaret, Nicolas Perret)

Imagen: Una sucesión de diaporamas de los siguientes fotógrafos: **Gabrielle Duplantier, Rafa Rodrigo, Luc Médrinal, Xomin Sourgens, Marie Trolliet, Polo Garat, Asier Gogortza, Guillaume Anselin.**

Este proyecto nace de un deseo por explorar nuevos puntos de partida para la creación de imágenes (en su mayoría fotografías): El sonido y más concretamente la práctica de grabaciones de campo. En este sentido, hemos propuesto a diferentes artistas provenientes de la disciplina de la fotografía participar en un proyecto ya con anterioridad muy sólido: Un álbum de ocho piezas creadas por la formación Hotel Gromada. Las ocho piezas sonoras que conforman el disco han sido repartidas entre los fotógrafos para que cada uno de ellos genere varias imágenes que posteriormente son proyectadas en forma de diaporamas en conjunción con las piezas sonoras correspondientes.

De la confrontación de las imágenes sonoras y las imágenes fotográficas, nace un universo de formas visuales, sonido y luz, de quietud y movimiento, que descubre una nueva realidad perceptiva que sumerge al espectador-oyente.

Un proyecto dirigido y coordinado por Catherine Luro y Marie Dubroca y apoyado por la plataforma para la nueva creación contemporánea Art & Project.



NO TOURS - ADIBERA

Bi proiektu hauen arteko elkarlan hau (ikus artisten biografiak informazio gehiagorako) aurtengo ERTZ jaialdiaren apusturik berritzaileenetakoa da. Smartphone edo laugarren belaunaldiko telefonoak eta GPS teknologia erabiltzen dituen audio-gida esperimentalak proposatzen du, espazio irekiak akustikoki arakatzeko aukera ematen duena.

Entzumen handiagotuari edo errealtate akustiko handiagotuari buruzko ariketa bat da. Ingurune hurbilean sortzen diren soinuak lehendik grabatuak eta Berako kaleetako puntu desberdinetan geolokalizatuak dauden bertze soinu batzuekin nahasten dira, entzuleak audifonoen bitartez aditzen dituenak.

Hartarako, Escoitar.org kolektiboak (Galizako soinuen maparen arduradunak) garatutako NOTOURS proiektuaren esperientzia Soinumapa (Euskal Herriko soinuen mapa) eta Adibera proiektuei gehitzen zaie.

Azken hau, Adibera, sentimen-erreferentziak eta zentzumenen bidez adi daitezken gertaerak eta zantzuak mapeatu nahi dituen talde ekimena da, maparen beraren kontzeptutik isurtzen diren kontraeranei aurre eginez. Soinumapa eta Escoitar egitasmoetara ederki egokitzen den proiektua da beraz. Hiruen artean ezohikoa bezain erakargarria den esperientzia eskaintzea dute helburu.

Praktikan, esperientzia hori bizi nahi duten erabiltzaileek Berako kultur etxera hurbildu beharko dute, han audio-gida aparatuak izango dituzte eskura eta haiekin Berako karraketan ibiliz herria berriz eta bertze modu batera entzuteko aukera izango dute.

Hardware garapena > Escoitar.org: Juan Gil, Enrique Tomás

Laguntza teknikoa > Xavier Balderas

Edukiak > Adibera & Soinumapa: Jakoba Errekondo, Alex Mendizabal, Juan José Aranguren, Xabier Erkizia, Iñigo Telletxea, Asier Gogortza

LEKUA

BERA

BERAKO KULTUR ETXEA

Eztegara pasealekua 11
31780 BERA (Nafarroa)
T : +34 (9)48 631 222
www.berakoudala.net/ / kultura@berakoudala.net

KAXERNA GAZTETXEA

Kaxerna karrika
31780 BERA (Nafarroa)

HILTEGI ZAHARRA

Eztegara pasealekua 12
31780 BERA (Nafarroa)

DONOSTIA

ARTELEKU

Kristobaldegi 14
Loiola Auzoa
20014 Donostia – San Sebastián
T: +34 943 45 36 62 F: +34 943 46 22 56
www.arteleku.net/ / arteleku@gipuzkoa.net

CRISTINA ENEA Ingurumen Baliabideen Etxea

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 (Kristina Enea parkean)
20012 Donostia – San Sebastián
T: +943 453 526
www.cristinaenea.org

HAZPARNE

TTATTOLA GAZTETXEA

Harana plaza
64240 Hazparne
<http://ttattola.canalblog.com/>

ELGAR ZENTROA

11 Gaskoina karrika
64240 Hazparne
T+: 0033 05 59702036

KREDITUAK

HARREMANAK:

ERTZ apdo 75 31780 BERA (Nafarroa)
www.ertz.net | info@ertz.net

Prentsarako:

Xabier Erkizia
xabierk@ertz.net
T+ 666904447

.....

ANTOLATZAILEA:

ERTZ elkarte
Berako Kultur Batzordea – Berako Udala

LAGUNTZAILEAK:

[Arteleku AUDIOLAB](#) (Donostia)
[ARTELEKU](#) (Donostia)
[EIHARTZEA KULTUR ETXEA](#) (Hazparne)
TTATTOLA GAZTETXEA (Hazparne)
KAXERNA GAZTETXEA (Bera)
GURE TXOKOA ELKARTEA (Bera)
TOKI ONA INSTITUTUA (Bera)

ZUZENDARITZA:

Iñigo Telletxea, Xabier Erkizia, Asier Gogortza

LAN TALDEA:

Ibai Gogortza (Kaxerna), Natalia Barberia, Maitane Otaegi (Arteleku), Catherine Luro, Xabina Larralde (Eihartzea)

DISEINUA :

Xavier Balderas

ERTZ



BERTZE MUSIKEN 11. JAIALDIA | 11 FESTIVAL DE OTRAS MÚSICAS

11 ERTZ



ALESSANDRO BOSETTI | Cellule
D'intervention METAMKINE | MAKI
| DAVE PHILLIPS | SOINUMAPA |
ADIBERA | FRANCISCO MEIRINO
| INAZIO ESCUDERO | MAIALEN
LUJANBIO | PLU DE MEKANISMS
| ESCOITAR | HÔTEL GROMADA

WWW.ERTZA.NET

2010KO IRAILAREN 10ETIK 18RA
10 AL 18 DE SEPTIEMBRE 2010

10-12 Berako Kultur Etxea, Gaztetxe. Bera (Nafarroa).
13,14 Arteleku. Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).
16 Kristina Enea. Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).
15-18 Ittattola Gaztetxea, Elgar Zentroa. Hazparne (Lapurdi).

ERTZ



audiolab

